



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urriaren 30a

116. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Socialistas de Navarra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako gizarte- eta lurralde-ezberdintasunak zuzentzeko gizarte-politikak aplikatu dituzten Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da akordio ekonomiko bat egin dezan nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikaste-teeetarako fruta- eta barazki-soberakinak. M.^a Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du GKE-en bidez edo sare publikoko osasun arloko langile gisa beren bizitzak arriskuan jarri arren gaixotasunak sendatzeko ahaleaginean diharduten pertsona guztien lan desinteresatua, eta txerto sendagarri baten ikerkuntza errazteko jarduketara global bat eskatzen du. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da herrilurretako perretxikoen eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzetan jarduketa-irizpideak ezar ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera. Eva María Gorri Gil andreak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko ea Saiona S.C.L. enpresak zer arrazoi izan dituen Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian instalatzea baztertzeko. Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, Castejón-Iruñerria tartean abiadura handiko trenbidea eraikitzearen kostuari buruzkoa. Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, jakiteko ea Gobernuak asmorik daukan Nafarroako udalentsako toki-inbertsioko plan berri bat arautuko duen foru lege proiekturik legegintzaldia bukatu aurretik aurkezteko. Xabier Lasa Gorraiz jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, langabeziaren aurka borrokatzeko “Gazte Bermea” izeneko ekintzarekin lotutako jarduketei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea zer jarduketa egin diren mozio bat betetze aldera, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen arauketa homogeen bat adostu dezan. Eloy Villanueva Cruz jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitakoen kostu ekonomikoari buruzkoa. Erantzuna emateko epea luzatzea (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuzá García jaunek Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak eremu mistoari dagokionez aurreikusten du euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunez egitea, ikastetxeetan eskatzen dutenentzat euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz, halako moduan non oinarritzko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan ahalko baitute.

Eremu ez-euskaldunari dagokionez, ordea, soilik aurreikusten da euskararen irakaskuntza bultzatzea eta, hala behar izanez gero, partzialki finantzatzea.

Legea onetsi zenetik mende laurdena baino gehiago iragan da, eta argi dago, izan diren gizarte-aldaketei erreparatuta, legea aldatzea komeniko litzatekeela. Eremu ez-euskaldunean bada euskaraz ikasteko eskaria, sarritan zailtasunak izan dituena erantzun bat eman dakion, eta erantzun bat eman behar zaiona; izan ere, ez dago inolako arrazoirik herritarren eskubideak eremu batetik bestera alda daitezen, hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea berbera baita bi eremu horietan.

Espainiak 2001eko otsailaren 2an berretsitako Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Kartak bere 8. artikuluan ezartzen duenez, irakaskuntzaren arloan, hizkuntza horiek erabiltzen diren lurraldean, hizkuntza ofizialen irakaskuntzaren kaltetan gabe, honako konpromiso hauek hartuko dira: eskolaurreko irakaskuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta hezkuntza tekniko eta profesionala ziurtatzea erregio edo gutxiengoan hizkuntzetan; unibertsitateko edo goi mailako beste ikasketa batzuk aurreikustea, eta helduen heziketa edo etengabeko heziketa neurri handi batean edo erabat hizkuntza horietan burutzeko ikastaroak eskaini daitezen beharrezko erabakiak hartzea. Erregio edo gutxiengoan hizkuntzak aspaldidanik erabiltzen diren eskualdeetatik kanpo dauden lurraldeei dagokienez, berriz, honako konpromiso hau hartuko da: egoki iritzitako mailetan erregio edo gutxiengoan hizkuntzak edo hizkuntzetan irakatsi ahal izatea baimendu, sustatu edo finkatzea, hizkuntzaren hiztun kopuruak hala jardutea bidezko egiten badu.

Hortaz, Espainiak Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Kartaren esparruan sinatutako konpromisoekin bat, legedia egokitu eta berrikusi beharra dago, Administrazioak erantzun diezaien eremu ez euskaldunean dagoen gizarte-eskariari, eremu mistoan egiten den modu

bertsuan hain zuzen ere, bai hezkuntza sistema-
ren barruan bai sistematik kanpo.

Artikulu bakarra.

1. Aldaketa bat egin da Euskarari buruzko
abenduarien 15eko 18/1986 Foru Legean, ondoren
ezarritakoarekin bat.

2. 26. artikulua honela idatzita geldituko da:

“26. artikulua.

1. Euskara irakaskuntzan sartzeari mailaz maila,
gero eta gehiago, eta nahikotasunez egiten da,
dauden ikastetxe publikoetan euskaraz irakasten
duten lerroak sortuz eskariaren arabera.

2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan eus-
kara irakatsiko zaie eskaera egiten duten ikasle
guztietan, halako moduan non eskolatzearen bukaer-
an euskararen ezagupen nahikoa izan ahalko bai-
tute.

3. Eskariari sare publikoan erantzun ahal izan
dakion, honako ikasle kopuru hau hartuko da ain-
tzat: eskola-unitate bat taxutze aldera hezkuntza
administrazioak irizpide objektiboekin jarraikiz ezein
irakaskuntza-eredutan baliatutakoa.”

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-
an argitara eman eta biharamunean hartuko du
indarra.

**Foru Lege proposamena, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikun-
tza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa, Lurrealde-
aren Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko
35/2002 Foru Legea aldatzen duena.**

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko
urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Ba-
tzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu
zuen, besteak beste:

1. Foru lege proposamen honi zuzenketak aur-
kezteko epea **2014ko azaroaren 10eko eguerdi-
ko hamabiak arte** luzatzea: “Foru Lege proposa-
mena, Nafarroan hirigintza iraunkorra,
hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko
neurriei buruzkoa, Lurrealdearen Antolamenduari

eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002
Foru Legea aldatzen duena.” Aipatu foru lege pro-
posamena 2014ko ekainaren 26ko 80. Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-
kari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako gizarte- eta lurralde-ezberdintasunak zuzentzeko gizarte-politikak aplika ditzan.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako gizarte- eta lurralde-ezberdintasunak zuzentzeko gizarte-politikak aplika ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko kide Txema Mauleón Echeverría jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako gizarte- eta lurralde-ezberdintasunak gainditzeko gizarte-politikak aplika ditzan.

Orain dela gutxi ezagutu dugu NUPeko Berdintasun eta Gizarteratze Gaiei buruzko Ikerketaren Katedraren azterlana, zeinean nabarmentzen baitira Nafarroan zenbait arlotan gertatzen diren lurralde-ezberdintasunak: hezkuntza, osasungintza, gizarte zerbitzuak, pobrezia, etxebizitza eta langabezia. Azterlan horretan argi ikusten da Tuter delako –eta, oro har, Erribera osoa– parametro ia guztietan okerren dabilen eremuetako bat.

Denok genekien, azterlan eta adierazle ezberdinen bidez, Erriberako, Pirinioetako eta Sakanako egoera kezagarria dela langabeziari dagokionez. Baina NUPen azterlanak ezin eztabaidatzeko datu kezagarriak eman ditu, izaera sozioekonomikoko lurralde-ezberdintasunak direla-eta egindako kritikak berrestera datozenak.

Azterlanak dio Nafarroako Lurralde Estrategiaren aplikazioari dagokionez berrikitan egindako ebaluazioaren arabera (2013) asko aurreratu dela Europako Lurralde Estrategiak 1999an ezarritako helburuak beteko dituen lurralde antolamenduan, baina zenbait erronka gelditzen direla oraindik ere, gizarte kohesioan eragina dutenak.

Tuterako Erribera da Nafarroa osoan egoerarik makurrena daukana langabeziaren arloan, eta asko dira horren arrazoiak: krisiak kualifikazio txikiko enpleguaren gainean izandako eragina –horra, esaterako, eraikuntzan zer gertatu zen–, prestakuntzarik eza, tradiziozko ohiturengatik, kualifikaziorik gabeko beste enplegu batzuei dagokienez –esate baterako, nekazaritza–, politika instituzionalak, immigrazioa, eta beste. Pobrezia-tasa, iturri horren erregio-atalasearen arabera, 8tik 9 puntura bitarte handiagoa da Goi Erriberan eta Tuteran, 10 etxetatik ia 3ra heltzeraino. Azterlanak behin eta berriro dio egungo krisiak eragina daukala gizarte-prestazioetan, zeinak, handitu beharrean, murriztu egin baitira.

Azterlanak beste datu kurioso batzuk ere ematen ditu; halatan, eremu pribatua baino egoera okerragoan jartzen dute eremu publikoa. Azterlanak agerian utzitako hori guztia behin eta berriro salatu izan dugu: adibidez, Erribera da berdegune gutxien daukan eremua, kaleen garbiketa eskasena daukana, eta zaratak eta animaliek eragindako eragozpen gehien pairatzen duen eremua.

Azterlanak dio Erribera dela zalantzarik gabe Nafarroa osoan egoera sozioekonomikorik maku-rrena daukana. Azterlanak dio beharrianen araberako politika publikoak falta direla kontuan hartu beharreko zenbait faktoretan.

Orobat dio ezen beharrian-egoeren intentsitatea eta pobrezia-egoeran dagoen herritarren bolumena areagotzen ari den testuinguru honetan gizarte-transferentziek ahalmen mugatua erakutsiko zutela Nafarroan diru-sarrerara txikiko egoerei estaldura emateko, egoera horretan dauden pertsonen proportzioa erdira jaitsiz. Alabaina, pobrezia larriko egoerak gehiago murriztea lortuko zuten, baina bere inpaktua Estatuan baino txikiagoa da. Nafarroan, 2011n, gizarte-transferentziek (erretiroak barne) lortu dute 18,4 puntu jais-tea pobrezia larriko etxeetako pertsonen proportzioa. Alegia, estatuan eta autonomia erkidego askotan gertatutako jaisiera baino txikiagoa (23,6 puntu). Kanariar Uharteetan eta Balear Uharteetan soilik izan da jaisiera Nafarroan baino txikiagoa.

Gizarte-gastua murrizteko gaur egungo etapa honek zenbait inkognita uzten ditu hurrengo urteetarako, diru-sarrerarik gabeko etheen proportzioaren igoera handiak erakusten duen bezala: % 3,4, 2013ko lehen hiruhilekoan. Diru-sarrerak bermatzeko mekanismoek ekidin beharko zuten egoera horretan dauden etheen bolumena handitzea. Ordea, datuek agerian uzten dute gero eta zailtasun gehiago daudela gizarte-babeseke sistemara atxikitzeko, Gizarteratze Errentak –zeinak Oinarrizko Errenta ordeztu baitu– ezarritako baldintza berriengatik, programako sartu-irteeren intentsitateagatik eta izapidetzeko a-zerapenengatik.

UPNk Nafarroan darabiltzan gizarte-politikak nabarmen gelditu dira, nahiz eta egia den, zoritxarrez, murrizketa horietako batzuk –zehazki, Gizarteratze Errentari emandako aizkorakada-kontseilari sozialista batek egin zituela, UPNrekiko Gobernuaren garaian.

NUPen txostenak hauxe dio bere azken para-grafo paradigmaticoan:

“Kuriroski, gizarte-beharrianetarako bereziki sentibera den baliabide baten lurralde-banaketa –esaterako, Gizarteratze Errenta, zeina bere aurrekariekin, Oinarrizko Errentarekin, eta aparte-ko laguntzekin batera aztertzen baitugu hemen– ez dator guztiz bat aurreko argazkiarekin: nabarmena da eragin handiagoa daukala Iruñean, eta

galdera bat uzten du airean: ea gizarte-zerbitzuetako programa hauek, sarbideko atean des-zentralizatuak, behar bezalako eragina izaten ari diren ustez beharrezkoen diren lekuetan (Goi Erriberan eta Tuterako Erriberan), eta ea herritarrek, espero izatekoa denez, berdintasun-baldintzetan dituzten horiek eskuragarri, arauaren interpreta-zioa lurralde osoan irizpide homogeen baten araberaginez?”

Horiek horrela:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait azkarren egin dezan plan bat, Nafarroako eremu ezberdinei eragiten dieten ezberdintasun sozioekonomikoen aurkako neurri-ekikoa, diziplina anitzeko neurri-sorta bat ezarriko duena eta aurrekontu-zuzkidura izanen duena, egoera larri eta kezkarri hau iraultzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ezberdintasun sozioekonomikoen aurkako plan bat taxutu dezan Tuterarako eta Erriberarako, kontuan hartuko dituen, Nafarroako Lurralde Ezberdintasunei buruzko Azterlanaz gain (NUP- Berdintasun eta Gizarteratze Gaiei buruzko Ikerketaren Katedra), dauden beste datu batzuk eta ukitutako udalek eta gizarte-eragileek aurkezten ahal dizkioten bestelako gogoetak eta proposamenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio dauden datu guztiak kontuan har ditzan, honako hauek ezartzeko orduan:

a) Toki administrazioentzako diru-laguntza mota oro.

b) Nafarroako Lurralde Estrategiako jarraibideekin bat finantzatzea Tuterako eta Erriberako oinarriko gizarte zerbitzuak eta bestelako gizarte zerbitzuak eta hezkuntza zerbitzuak; izan ere, Nafarroako Gobernua estrategia horren bidez konprometitu zen Tuteraren hiriburutza bultzatzera, Tuteran nahiz inguruetan jarduerak eta azpiegiturak areagotuz, eta bertan erregio-mailako zerbitzuak ezartzera.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio sartu beharreko kontusailak sar ditzan 2015erako aurrekontuan, Nafarroako Lurralde Estrategiarekin bat.

Iruñean, 2014ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da akordio ekonomiko bat egin dezan nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikastetxeetarako fruta- eta barazki-soberakinak.

M.ª CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.ª Carmen Ochoa Canela andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita akordio ekonomiko bat egin dezan nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikastetxeetarako fruta- eta barazki-soberakinak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Mari Carmen Ochoa andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Landa Garapeneko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Elikagaien Bankuak ezin du bereganatu merkatu-soberakinak arintze aldera eta prezioak hondoratzea ekidite aldera azken hilabeteotan soroetatik erretiratzen ari den fruta guztia. Fruta-soberakina zor zaio, neurri handi batean, iragan abuztuaren 7tik aitzina Errusiak Europako frutei eta barazkiei ezarritako merkataritza-betoari, zeinaren ondorioz Bruselak dirua eman baitzuen ekoizleei merkatura ateratzen ez duten fruta erretiratu ordaintzeko. Horren helmuga nagusia izaten ari da Nafarroako Elikagaien Bankua. Arazoa da ongintzako entitate horrek 8.000 herritarri soilik banatzen ahal dizkiela fruta eta barazki freskoak; hau da, elikagai ez-galkorrak jaso ohi dituzten 36.000 nafarren % 22ri.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du akordio ekonomiko bat egin dezan Nafarroako nekazaritzako elikagaien kooperatibekin, beren hozkailuetan gorde ditzaten Elikagaien Bankurako eta ikastetxeetarako fruta- eta barazki-soberakinak, eta aldian-aldian bana ditzaten, behar dituzten pertsona guztiengana eta ikastetxeetara hel daitezen.

Iruñean, 2014ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Ochoa Canela

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten du GKE-en bidez edo sare publikoko osasun arloko langile gisa beren bizitzak arriskuan jarri arren gaixotasunak sendatzeko ahaleginean diharduten pertsona guztien lan desinteresatua, eta txerto sendagarri baten ikerkuntza errazteko jarduketa global bat eskatzen du.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten baitu GKE-en bidez edo sare publikoko osasun arloko langile gisa beren bizitzak arriskuan jarri arren gaixotasunak sendatzeko ahaleginean diharduten pertsona guztien lan desinteresatua, eta txerto sendagarri baten ikerkuntza errazteko jarduketa global bat eskatzen baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena adierazten dio GKE-en bidez edo sare publikoko osasun arloko langile gisa beren bizitzak arriskuan jarrita ere gaixotasunak sendatzen saiatuz diharduten pertsona guztien lan desinteresatuari, eta txerto sendagarri baten ikerkuntza errazteko jarduketa global bat eskatzen du.

Ebola bezain gaixotasun larri baten aurka Teresa Romerok izandako borroka agerian utzi du pertsona askok lan ikaragarria egiten dutela modu desinteresatuan, irabazi asmorik gabeko zenbait erakunderen bidez, munduaren luze-zabalean gaixotasun mota horiek desagerrarazteko.

Orobat gelditu da agerian osasun-sare publiko langileek lan handia egin dutela, inguruabar

bereziki zailtan egin ere, non protokolo argirik eza eta informazio berant eta kontraesankorrak zailtasun gehigarri bat izan baitira profesional horiek beren lana behar bezala egin zezaten; bada, hala eta guztiz ere, egoerak eskatzen zuen mailan jardun dute.

Hortaz, Teresa sendatzeari esker auzia lehen informazio-lerrotik zorionez desagertu baino lehen, uste dugu beharrezkoa dela aintzatespen txiki bat egitea pertsona horiei guztiei, Espainia barruan nahiz Espainiatik kanpo lan egiten dutenak jende askori lagundu nahian; hain zuzen ere, baliabiderik ez daukatelako edo herrialde jakin batzuetan bizi direlako arrisku izugarria baitute gaixotasun asko izateko eta, zehazki, ebola bezalako gaixotasunak.

Aintzatespen horretan, egunero egiten duten lana balioan jartzeaz gain dei egin beharko genuke, eta erreklamatu, jarduketa global bat egin dadin gisa horretako gaixotasunen aurrean; izan ere, kasu gutxi batzuetan baizik ez diotenez eragiten mundu zibilizatuari, ez dira ikerkuntzarako lehenesten.

Horregatik guztiagatik, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeari:

1. Nafarroako Parlamentuak espresuki aintzatesten du gaitz eta gaixotasun mota ororen aurka irabazi asmorik gabeko elkarteen bidez munduko edozein bazterretan beren bizitza arriskuan jartzeraino borrokatzen duten pertsona guztien lan desinteresatua, bai eta osasun arloko profesional guztiena ere, zerbitzu publiko bat ematearren egoera konplikatuei aurre egin behar izaten baitiete, haiek ere beren bizitzak arriskuan jartzeraino.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du erakunde horiek egunero egiten dituzten eskariekin, zertarako eta mundu garatuak, osorik eta modu globalean, erabaki dezan funtsak bideratzea txertoak ikertzera eta prestatzera, une honetan kutsaturik dauden hainbeste eta hainbeste per-

tsonaren bizitza eta erremediorik gabe laster kutsatuko direnena salbatzeko, eta Espainiako Gobernuia premiatzen du nazioartean lan egin dezan honako helburu hau lor dadin: funts global bat, ahal den gehiena hornitua, gutxien garatutako herrialdeei zuzenean eragiten dieten gaixotasun birikoak eta kutsakorak ikertzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak pozez hartzen du Teresa Romero sendatu izana, eta zorionak ematen dizkie medikuei, erizainei eta Teresa sendatzeko prozesuan esku hartu duten guztiei.

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da herrilurretako perretxikoen eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzetan jarduketa-irizpideak ezar ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera.

EVA MARÍA GORRI GIL ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eva María Gorri Gil andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita herrilurretako perretxikoen eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzetan jarduketa-irizpideak ezar ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da herrilurretan ziren eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzetan jarduketa-irizpideak ezar ditzan Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera.

Nafarroako Aldizkari Ofizialak 2014ko urriaren 22an argitaratu zuen Abaurregaineko Udalaren ordenantzaren behin betiko onespina, hermendiko onddo, ziza eta gainerako produktu naturalen aprobetxamendua arautzen duena.

Abaurregaineko ordenantza da NAOk jasotzen duen azken udal ordenantza, jabetza publikoko lurretan natur baliabideak aprobetxatzeari buruzko arauak ezartzen dituzten artean.

Gaur egun jada 13 entitate inguru dira, ia 30 udal hartzen dituztenak, zizak eta onddoak hartzeko esparruak ezarri dituztenak.

Ordenantzek askotariko alderdiak jaso ohi dituzte; esaterako, baimen-motak eta horien ezaugarriak, baldintzak eta mugak, tarifak, pertsonen eta ibilgailuen sarbideak, denborazkotasuna, bilketa-arauak eta -ordutegia, kontrol-sistemak, funtsen xedea eta zehapenak.

Ordenantza horien guztien ezaugarri nagusitariko bat da askotarikotasuna eta oinarrizko irizpide homogeneorik eza. Hasteko eta behin, alde nabarmena dago denboraren aldetik. Lehendabiziko kasuak aurreko mendeko azken hamarkadetan ezarri ziren, eta gaur egun zenbait udalek erakutsi dute arlo hori arautzen eta ordenantzak onesten jarraitzeko beren borondatea.

Handiak dira orain arte onestitako ordenantzen arteko aldeak. Hala gertatzen da izapidetzeko eta onesteko prozeduran (ez dira denak NAOn argitaratzen), eta hala gertatzen da edukian ere. Adibidez, kasu batzuetan erroldatutako bizilagunei soilik baimentzen zaie zizak eta onddoak biltzea;

beste batzuetan, erroldaturik ez dauden baina loturaren bat daukaten bizilagunei edo ehiztariekarte bateko kideei laguntzen zaie, tasa txikiagoa ezarriz; batzuetan merkataritza-ustiapena arautzen da, eta beste batzuetan ez; baimenen zenbatekoa eta denborazkotasuna ere aldatzen da batetik bestera, eta beste horrenbeste gertatzen da egun batean bil daitezkeen kopuruei dagokienez; kopuruak piezatan ezartzen dira batzuetan, eta beste batzuetan kilotan, eta ezberdinak izan daitezke noizentzat diren, bertakoentzat edo kanpokoentzat.

Ordenantzek 5 eurotik 15 eurora bitarteko eguneko baimenak ezartzen dituzte; urtekoak, berriz, 75 eurotik 120 eurora bitartekoak izan daitezke. Beste batzuek 12 edo 14 urtetan ezartzen dute bilketarako gutxieneko adina.

Bestalde, hor dago otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Erregelamendua, hermendietan onddo, ziza eta gainerrako produktu naturalen barrutiak ezartzeko.

Ziza eta onddo bilketa oso zabaldua dago Nafarroan, eta beste erkidego batzuetako jendea ere erakartzen duen jarduera da. Kontuan hartu behar da, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko mendiek eta natur eremuek potentzial mikologiko handia daukatela.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa lankide-

tzan aritzea planteatzen dugu, toki entitateak biltzen dituen, beren interes komunak babesten dituen eta toki autonomia defendatzen duen entitatea den aldetik.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lantalde bat ezar dezan, sei hilabeteko epean zenbait irizpide ezartzeko, herrilurretan zizen eta onddoen aprobetxamendurako ordenantzak prestatu eta aplikatzearen gainekoak.

Irizpide horiek errespetatu egin beharko dituzte, besteak beste, udal autonomia, natur eremu bakoitzaren ezaugarri bereziak eta natur baliabideen aprobetxamendu iraungarria.

2. Prozesu horretan sar ditzan jada zerbitzuan dauden barrutietan metatutako esperientzia, elkarre naturalistak eta arloko adituak.

3. Azter dezan 59/1992 Foru Dekretua, otsailaren 17koa, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea garatzeko xedez emandako Mendien Erregelamendua onesten duena, ikusteko ea gaurkotu behar ote den mendiko produktuen aprobetxamenduaren arloan.

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Eva María Gorri Gil

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Saiona S.C.L. enpresak zer arrazoi izan dituen Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian instalatzea baztertzeko.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Saiona S.C.L. enpresak zer arrazoi izan dituen Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian instalatzea baztertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko batzordean izapidetzeko.

2013ko urtarrilean, Nafarroako Gobernuoko lehendakari Yolanda Barcina andreak eta Saiona, S.C.L. kooperatibako lehendakari Jesús María Echarri jaunak akordio bat sinatu zuten, esnekiak prozesatzeko planta bat paratzeko Tuterako

Nekazaritza-elikagaien Hirian; hau da, sektoreko industriei zerbitzu emate aldera Nafarroako Gobernuak sustatutako industrialdean.

Akordio horren sinadurarekin batera iragarri zen 12 milioi euro inbertituko zirela eta zuzeneko 50 lanpostu sortuko zirela. Akordioa sinatu zenean, Nafarroako Gobernuak nekazaritza-elikagaien sektorearekiko bere apustua berretsi zuen, Nafarroarako arlo estrategiko gisa.

Gaur, akordioa sinatu zenetik hogeita bi hilabete igarota eta instalazio berrien zerbitzu-ematearen hasiera hipotetikorako epe guztiak beteta, jakin dugu Saionak Tuterako baztertu duela eta Ólvegan (Soria) instalatzea erabaki duela; Foru Komunitatearentzako zartada handia, inondik ere.

Hona galdera:

• Saiona S.C.L.k zer arrazoi izan ditu Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria baztertu eta Ólvegan (Soria) instalatzea erabakitzeko?

• Zer bilakaera izan du Nafarroako Gobernuak eta Saiona S.C.L.k bere garaian lortutako akordioak, gaur egun daukagun egoerara heldu arte, non kooperatibak Erriberan instalatzea baztertzeko duela iragarri baitu?

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Castejón-Iruñerria tartean abiadura handiko trenbidea eraikitzearen kostuari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Castejón-Iruñerria tartean abiadura handiko trenbidea eraikitzearen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Sustapen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Sustapen Batzordean ahoz erantzuteko:

Zaragoza-Iruña abiadura handiko linearen Nafarroako zatia egite aldera Estatuko Administrazio Orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2009an sinatutako lankidetzako protokolo orokorrean eta Estatuko Administrazio Orokorrak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta ADIF-Trenbide Azpiegituren Administrazioaileak 2010ean sinatutako lankidetzako hitzarmenean ezartzen dira proiektu horren nondik norakoak.

Zehazki, dokumentuetako bigarrenak arautzen du Castejón-Iruñerria zatiari dagokiona. Dokumentuan aipatzen da kostua 675 milioikoa dela gehienez ere; zenbateko horretan sartzen dira bai desjabetzeak, bai proiektuen idazketa, ikuskape-

na, obra-zuzendaritza eta obren exekuzioa bera ere.

Halaber, zenbait gogoeta egiten dira, aurreikusitakoaren aldean gaitzesak gertatzen diren kasuetarako, Nafarroak aurreratutako kostuei dagokienez; funtsean, plataforma, baina baita desjabetzeak, proiektuak eta obra zuzendaritza ere. Horren guztiaren kostua ustez 387,65 milioikoa da.

Hori guztia kontuan hartuta, foru parlamentari honek ondoko galderak egiten dizkio kontseilariari:

1. Nafarroako Gobernuaren iritziz, zer irizpide erabili beharko litzateke baldin eta hitzarmenaren adenda bat negoziatu beharko balitz gaitzesak bat gertatu delako –edo aurreikusten delako– plataformarako, desjabetzeetarako, proiektuak idazteko eta obren zuzendaritza eta ikuskapenerako kostu estimatu gisa ezarritako 387,65 milioiei dagokienez?

2. Nafarroako Gobernuaren iritziz, gaitzesurik gertatzen ahal da azpi-tarteren edo kontzepturen batean, gaitzesurik gertatzen edo kontzeptuetan kostu txikiagoa eginez konpentsatzen ahal dena, inolako adendarik hitzartu behar izan gabe, baldin eta ez bada gaitzesurik 387,65 milioi euroko gehieneko kostua?

3. Alegia, Nafarroako Gobernuak ere uste al du Castejón-Iruñerria tartean Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu behar duen kostu bakarra dela desjabetze-prozesua kudeatzeko bulegoarena, albo batera utzita Hitzarmenean adostutako geroratzetik heldu diren interesak eta zein ere den azken kostua?

Iruñean, 2014ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakiteko ea Gobernuak asmorik daukan Nafarroako udalentsako toki-inbertsioko plan berri bat arautuko duen foru lege proiekturik legegintzaldia bukatu aurretik aurkezteko.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Gobernuak asmorik daukan Nafarroako udalentsako toki-inbertsioko plan berri bat arautuko duen foru lege proiekturik legegintzaldia bukatu aurretik aurkezteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabi Lasa Gorraizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparza Abaurrea jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak ba al dauka asmorik Nafarroako udalentsako toki-inbertsioko plan berri bat arautuko duen foru lege proiekturik legegintzaldia bukatu aurretik aurkezteko?

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Zerga Ogasunarekin indarrean dauden zerga-zorrei buruz, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

a) Indarrean dauden zerga-zorren zenbateko osoa, mugaeguneratuena eta mugaeguneratugabea.

b) Miloi bat eurotik gorako zor mugaeneratua nahiz mugaeguneratugabea duten zergadunen kopurua.

c) Zor aitortuen geroratzei buruz sinatutako akordio-kopurua, ondokoak zehaztuta: zenbatek duten milioi bat eurotik 5 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 5 milioi eurotik 10 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 10 milioi eurotik 15 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 15 milioi eurotik 20 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 20 milioi eurotik 30 milioi eurora bitarteko zorra; zenbatek 30 milioi eurotik 40 milioi eurora bitarteko zorra;

zenbatek 40 milioi eurotik 50 milioi eurora bitarteko zorra, eta zenbatek 50 milioi eurotik goitikoak.

d) Sinatutako geroratze kopuruaren zerrenda, 2000tik gaur arte urtez urte adierazia, geroratze horien urteko zenbateko osoa zehaztuta.

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, langabeziaren aurka borrokatzeko “Gazte Bermea” izeneko ekintzarekin lotutako jarduketei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, langabeziaren aurka borrokatzeko “Gazte Bermea” izeneko ekintzarekin lotutako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Langabeziaren aurka borrokatzeko “Gazte Bermea” izeneko ekintzarekin lotutako jarduketei dagokienez, hauxe jakin nahi dut:

– Jarduketak egiteko epea, hasiera nahiz bukaera egunei buruzko aurreikuspena zehaztuta.

– Gaur arte egindako jarduketaren zerrenda, parte-hartzaile kopurua zehaztuz.

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakiteko ea zer jarduketa egin diren mozio bat betetze aldera, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen arauketa homogeneo bat adostu dezan.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea zer jarduketa egin diren mozio bat betetze aldera, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen arauketa homogeneo bat adostu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko martxoaren 13an egindako bilkuran, Parlamentu-talde Popularrak aurkeztutako mozio bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen erabileraren arauketa homogeneo bat adostu dezan.

Legebiltzarrak emandako agindua ikusita, hona galdera:

– Zer jarduketa egin dira mozioa betetzeko? Zehaztu lantaldeko kideak eta egindako bilerak.

– Ezarritako irizpideen zerrenda.

Iruñean, 2014ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitakoen kostu ekonomikoari buruzkoa.

ERANTZUNA EMATEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Osasun kontseilariak idazki batean eskatzen du honako galdera honi erantzuna emateko epea luza dadin: "Galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitakoen kostu ekonomikoari buruzkoa." Galdera Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Eva María Gorri Gil andreak egin zuen. Idazki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitakoen kostu ekonomikoari buruzko galderari erantzuna emateko epea 2014ko azaroaren 17ra arte luzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

